

Nabarmen egin du gora birziklatzeak Lea Artibaian 2018an

Organikoa bereizita jaso den lehen urte osoko datuak batu ditu Lea Artibaiko Amankomunazgoak. Errefusa jaitsi egin da eta gainontzeko gai guztiak igo egin dira esperotako emaitzak lortuz. %43ko birziklapen tasa lortu du Lea Artibaik, Bizkaiko handiena. Birziklatu

lazko datuen tendentzia baieztatu egin du Lea Artibaiko Amankomunazgoak 2018ko datuak bilduta. Organikoa bereiztearekin batera, gainontzeko gai guztien sailkapena handitu egin da.

	2017		2018		
HH	6.653.680	%69,49	5.520.400	%57,20	-
P/K	1.064.540	%11,12	1.180.120	12,2%	+
BEIRA	969.139	%10,12	1.016.607	%10,53	+
HORIA	529.183	%5,53	584.806	%6,06	+
ORGANIKOA	-	%0,00	954.920	%9,89	+
ZURIA	147.934	%1,55	156.316	%1,62	+
OLIOA	22.639	%0,24	25.763	%0,27	+
TRASTE ZAHARRAK	185.250	%1,93	210.170	%2,18	+
PILAK	2.341	%0,02	2.585	%0,03	+
	9.574.706		9.651.687	76.981	%0,80

Azpitarratzeko datuen artean aurkitzen da errefusaren 1.133.280kiloko jaitsiera egon dela. Kontuan hartu behar da 2018ko bigarren hiruhilabetekoan hasi zirela sortzaile handiek batzen, ikastetxe, taberna, jatetxe eta janari dendak, hain zuzen. 2018An gainera, puntu mugikorraren ekimena ez zegoen martxan oraindik, emaitzak hobetuko daitezke, beraz.

Rakel Elu Bengoetxea, Amankomunazgoko lehendakariaren arabera "genituen aurreikuspenak betetzen doaz. Organikoa sailkatzeko erraztasunak jarrita, gainontzeko zaborraren sailkapena egitea errazagoa izan da herritarrentzat eta konpromisoa handituz doa. Ingurugiroaren errespetuarekin kontzientziatua dagoen eskualdea da Lea-Artibai, eta bide honetan sakondu behar dugu orain. Erronka da tendentzia honekin jarraitzea, eta emaitzak hobetuko direla espero dugu datozen datuekin".

